



Gerrak ez du emakume aurpegirik

Egilea: Svetlana Aleksievitz

Hau bai liburu hunkigarria, hau! Noizean behin, irakurketa bertan behera utzi behar izaten dut –frontean, alemaniarren aurka, euren herriaren alde, emakume hauek jasan zituzten gorabehera handiak irakurri ahala, emozioak gainezka egiten didalako—. Gainera, kontakizun bakoitzaren amaieran, emakume hauen kontra indar eta bizitasun handiz laburbiltzen duen azken esaldi bat, azken zertzelada bikain bat gehitu ohi du egileak, kontraera indartuz eta errematatuz.

Liburua gerrari buruz eta gerraren ondorioei buruz gogoeta egiteko gonbidapena ere badela esango nuke. Denok dakigunez, gerrak-eta ziklikoak direla ematen du, eta hori aldatzeko ezer gutxi egin omen dezakegu.

Hala eta guztiz ere, ni ikaragarri bakezalea sentitzen naiz barrutik. Beti izan naiz horrela. Ez dakit ba, bizitza osoan lagundu didan nire baitako jarrera bat da.

Horrez gain, egia da euskal herritarra naizela eta nire bizitza guztian ezagutu ditudala indarkeria-giroa, errepresioa, frankismoa, batzuen eta besteen atentatuak, torturak, bahiketak...

Bakean oinarritutako elkarbizitza hainbeste maite badut, baliteke horregatik izatea.

Eta hain denbora nahasiak bizi garela ikusita, arestiko gertaerez gogoeta egiteko deia egin nahi nuke.

Abertzaletasuna pisu eta sakonera handiko sentimendu bat da katalanen artean. Egia. Abertzaletasun bakoitzak bere mapa politikoa daukala bezain egiazkoa: katalanek beraien mapa daukate, euskaldunok gurea, galiziarrek beraiena... eta espainiarrek ere beraiena.

Hori ez da besterik gabe aldatuko. Batzuek eta besteek buruan eta bihotzean grabaturik daramaten mapa horri ez dio inork uko egingo. Eta horrek ere balio du espainiarrentzat, beraien mapa politikoari ez baitiote besterik gabe uko egingo.

Puntu honetara helduta, zertarako balio du elkarrizketan funtsaturik dauden zubi guztiak eraistek? Zer gelditzen da, behin zubi horiek lurrera botata? Elkarrizketarik ez badago, zerk ordezkaturiko hitza? Zerk beteko du elkarrizketak betetzen zuen lekua? Armek...? Errepresioak...? Atentauak...? Etengabeko gatazkak...?

Batzuek esaten dute: “500 urte daramatzagu okupatuta”. Bai, hala izango da, baina... ez da ahuntzaren gauerdiko eztula! 500 urtean, euri pila egin du eta. Nolanahi ere, espazio geografiko bera partekatzen milaka urte daramatzagula esango bagenu, hori ere egia hutsa izango litzateke.

Bai, historian zehar gorabehera ugari izan dira (herri guztietan bezala). Ados. Baina elkarbizitza planteatzeko modu asko daude. Elkarrekiko errespetuan planteatu dezakegu, denok pittin bat amore emanez; ala, geure kontsignetan tematu gaitzke eta modurik okerrenean amaitu.

Sute bat eragitea erraza da; itzaltzea, ordea, beste upeleko sagardoa da. Zenbaitetan suak bere horretan dirau, erregai guztia agortu arte. Eta zer gelditzen da gero? Lur errea. Lugo bat. Eta oso poliki lehengoratuko den paisaia bat, nahiz eta suntsitutako jabetzak (ezagutu genituen bezala) eta, batez ere, gizakion biziak (materialak eta ez-materialak), horiek, sekula santan berriro lehengoratu ez.

Nik batzuei eta besteei eskuzabalak izateko eskatuko nieke, eta elkarbizitza eta bakea ziurtatuko dituen bide bat aurkitzen saiatzeko, zeren, horiek gabe, ezerk ez du inoiz benetan merezi izango. Eta bakoitzaren sentimendu abertzaleari irteera duin bat ematea ere gustatuko litzaidake, *adouane* gehiagorik ireki gabe eta bereiziko gaituzten murrusalbazin gehiagorik altxatu gabe.

García ala Gartzia, Velázquez ala Belasko, Goya ala Goia: zer izan zen lehenago, arrautza ala oiloa? Funtsean, Iberiar Penintsulako herri guztiok elkarrekin antz pixka bat (edo antza handia) daukagula sinetsita nago ni; litekeena da guk uste baino antz askoz handiagoa izatea. Uste dut aitortzeko prest gauden baino ezaugarri askoz gehiago partekatzen ditugula.

Dei bat egin nahi nieke Iberiar Penintsulako herrialdeen arteko adiskidetasunari, anaitasunari, ontasunari.

Ea zein den jarraitu beharreko bidea? Bada, indarkeriaren zurrunbiloan erortzetik gehien urrunduko gaituena. Hori da, hasteko, jarraitu beharreko bidea ¹.

Horrelaxe pentsatzen dut eta, batez ere, horrelaxe sentitzen dut. Barka, nire hitzekin norbait mindu badut. Eta, ziur aski, hala izango da, zeren, batzuen eta besteen aldeko hautua egiteko orduan, zalantzati, ez bai eta dudakor azaldu ohi garenok azkenean amaitzen baitugu egurra alde guztietatik hartzen. Baina hala izatea nahi dut. Hauxe da nire lekua, hauxe da nire tokia, eta hauxe da nire benetako aberria: leku bat non bizi naitekeen bake onargarri batean, segurtasunez, nire gizabanako-askatasunarekiko errespetuz, ongizate-gizarte batean, etorkizunari konfiantzaz begiratu, nahi dudana hizkuntzetan bizitzen...

Gugandik 12.000 kilometrora bizi diren herriekin harreman ona izatea ez da zaila; aldiz, gure herriarekin muga egiten duten kulturekin ondo moldatzea hori bai meritu handia, edota gure herriaren barruan dauden kultura ezberdinekin ondo moldatzea, gaur egun gero eta zailagoa baita "arraza" bakar batez, "kultur entitate" bakar batez eta hizkuntza bakar batez osaturiko herriak topatzea.

Eta zergatik da zaila? Agian naziek gerra irabazi ez zutelako. Dibertsitatea zinez gauza handia dela esan nahi dut. Ez ditzagun herriak eta kulturak gorrotatu. Akaso, gorrota

¹ Eta indarkeria ez da odola isurtzea soilik. Indarkeria ere izan daiteke dialektikoa, instituzionala, judiziala, mediatikoa, soziala, tribala, alderdikoia... Eguneroko elkarbizitzari eragiten dion indarkeria ez da bakarra, anitza baizik.

ditzagun gu gobernatzen ez dakiten politikariak: ezgauzak direlako, edo berekoiak direlako, edo hegemonikoak direlako, edo itsuak direlako...

Iberiar penintsulan dagoen kultura eta dibertsitatea² gizateriaren ondareztat jo beharko litzatekeela uste dut. Ez dezagun hori guztiori suntsitu. Ez dezagun kultura bat beste baten mesedetan gutxietsi. Aitzitik, balia gaitzen eskura ditugun kultura guztiez gure giza bagajea aberasteko; zubiak suntsitu ordez, zabal ditzagun. Eta, oroimen historikoari eusteko orduan, ez gaitzen gure lurraldeetako errepresaliatuez ahaztu, ados, baina ez gaitzen ere ahaztu, esaterako, Badajoz aldean 1936ko abuztuaren 14tik 15era hildako gizonez eta emakumez, haiek ere gure errepresaliatuak direlako, kausa zuzen eta jator baten alde hil zirelako, gugatik ere hil zirelako, gure kausa berberetatik.

Esana dut: ez gara horren ezberdinak.

Eta, ba al dakizue gauza bat? Yagüe jeneralaren –Badajozeko Sarraskitzailearen– balioak ordezkatuko dituen herrialde batean bizitzeko ideia berez gorrotagarria iruditzen zaidan bezala, Badajozen (Iberiar Penintsulako beste hainbat tokitan bezala) gau bakar batean hildako 4.000 lagun horien balioak errepresentatuko dituen herrialde batean bizitzea ez litzaidake axolarik batere. Haiei ere zerbait zor diegulako. Eta ez dut zertan lotsatu hildako haiek ere nire oroimen historikoaren parte sentitzeaz edota neure espazio geografikoaren parte sentitzeaz.

Iberiar Penintsula osatzen dugun herri eta kulturen arteko elkarbizitza eta antolamendu-eredua birplanteatu beharko genukeela uste dut, benetan. Eta goi-asmoz eta eskuzabal jokatzuz gero, agian ez zaigu horren zaila gertatuko gure tokia, lehenik, geure etxean topatzea; bigarrenik, aldameneko etxean; eta hirugarrenik... munduan.

Iberiar Penintsulako Herri eta Kulturen arteko Batasuna (H.K.B.)

Unión de Pueblos y Culturas de la Península Ibérica (U.P.C.)

² Munduko bazter guzti-guztietan dagoena bezalaxe.